

Euskararentzako aurrekontua erdira jaitsi du Arabako Foru Aldundiak

PP 2011TIK ARI DA GOBERNATZEN Arabako Foru Aldundian. Bi urtean aurrekontu orokorra %24 murriztu du; euskararena %66. 2013rako aurrekontu proiektua onartzen badute Euskara Sailak 2011n baino milioi bat euro gutxiago jasoko du.

Kolperik handiena kuadrilletako euskara teknikarien sareari eman diote: 2013an ez luke euro bakar bat bideratuko Aldundiak sail horretara. Aurten 233.000 euro bideratu ditu eta 2011n 245.000 euro. 2008ko hondarrean, Euskara, Kultura eta Kirol sailburu zenari ARGIAK egindako elkarrizketan, EAko Lorena Lopez de Lacallek

egitasmorik indartsuenetakotzat jo zuen euskara teknikarien sarea osatzeari. Zazpi kuadrillek teknikari bana izango zuten. Euskara teknikarien sareak herri txiki sakabana-tuz osatutako Araban, erakunde publikoen eta herri ekimenen arteko harremana egituratzen lagunduko zuela aurreikusi zuten.

2013ko aurrekontuak aurrera egiten badu, beste sail batzuk ere 0 eurotan geratuko dira. Euskarari buruzko mintegiak egiteko 0 euro egongo dira (aurten 10.000 euro); Merkataritza eta Industria Ganberak ere ez du sosik jasoko (aurten 25.000 euro); Geu Gasteizek eta Eusko Iker-ek ere batere ez. Lehe-

nengoak 2011n eta 2012an 9.000 eura jaso ditu eta bigarrenak 3.000 euro inguru.

Beste sail batzuek desagertuta jarraituko dute, 2012an bezalaxe. Hala, ez da sosik banatuko ondoko sailentzat: Udaletan euskara sustatzeko planentzat; Nafarroa Oinez eta Herri Urratsentzat; Topagunearentzat; eta euskara elkarrean ondasun inbertsioak egiteko.

2011n ia 1,5 milioi euro bideratu ziren Euskara Sailera, 2013an, borobilduta, 500.000 euro izan daitezke. Konparazio batera, Alavesentzat eta Baskoniarentzat, hurrenez hurren, 1,3 eta 1,4 milioi euroko aurrekontuak aurreikusi dituzte.

Android euskaraz izateko lanean ari dira

ANDROID MUGIKORREN sistema operatiboa euskaratzen hasi da talde bat. Bloga (androideuskaraz.akinge.eu/blog/) jarri dute abian eta orain arte eman dituzten pausoak azaldu dituzte. Android

sistema 41 hizkuntzatan erabil daiteke, tartean katalanez. Aldiz, Google-ek ez du baieztatu euskara txertatuko duenik. Boluntario taldearen asmoa sistema osoa itzultzea da, Google-ek adierazi baitu itzul-

pen osoa bidaliz gero onartzeko aukera izango duela. Beraz, boluntarioek mugikorren sistema itzultzen laguntzeko deia egin dute. Blogean argibideak ematen dituzte itzulpena egiteko.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Mafiak bai, pobreak ez

EGUNAK JOAN EGUNAK ETORRI, Rajoyren Gobernuak kudeaturiko kapitalismoak neurri berriekin harritzen gaitu, haien kontra mobilizatzeraz derrigor-tzen gaituzten neurriak dira, ez badugu nahi behin betiko hondora gaitzaten eta immigrante behartsuak diskriminatu ditzaten. “Mafiak bai, pobreak ez” izan liteke neurri horien leloa. Rajoyren Gobernuak immigranteen etsaia da, kasik xenofobiaraino; atzerritarren legean inbertitzaileentzat salbuespen bat egitea aztertzen ari da. Lege horrek erabat murrizten eta kontrolatzen du Afrikatik eta Asiatik Espainiako Estatura doazen immigranteen sarrera. Eta orain erreformatu egin nahi dute, 160.000 eurotik gorako etxebizitza erosten duten atzerritarrei erresidentzia baimena eman ahal izateko. Hau da, nahiago dute errusiar edo txinatar mafiak etortzea, haien diruak etxebizitza stocka duten bankuei utz diezazkieten, pateratan edo hegaldi merkeetan lan bila immigrante

pobreak etortzea baino. Ez die ardura, antza denez, diru horien jatorriak, kapital zuriketakako irtenbidea aurkitu dezaketen arren. Beste behin ere, Espainiako Gobernuak bankuen esklabo da, higiezinaren merkatua salbatzearen.

“Euskal Herria martxan, lan duinaren eta eskubide sozialen alde” lelopean, 26tik 30era, martxa antolatu dute sindikatuen gehiengoak eta ehun bat eragile sozialek. Euskal erakunde publikoei eskatu diete euren eskubideen alde egin dezatela eta alda ditzatela politika publikoak. Era berean, etxebizitza eskubidearen alde guztien arteko frontea osatu nahi dute, izan ere neurri harrigarriak hartzen ari dira azkenaldian, “pobreentzat etxe kaleratzeak, eta dirua dutenentzat, erresidentzia”. “Mafiak bai, pobreak ez” leloa betetzea eragotzi behar dugu.

Juan Mari Arregi

